

Heri Aldizkaria

# Otamotz

2003ko maiatza 87. alea



## Araba Euskarazera Asier Otamendirekin

JULITA TELLERIA ETA JULI JAUREGI: 100 URTE, HAMAICA ISTORIO

ELKARRIZKETA: MIREN JOSU ARANBURU

IZERDI PATSETAN: GURUTZE FERNANDEZ

e u s k a l d u n o n

# Egunkaria aurrera!



300 euroko eta 50 euroko  
**AKZIOAK SALGAI**

maiatzaren 12tik ekainaren 13ra  
astelehenetik ostiralera  
Urretxuko Kultur Etxean  
19:00etatik 20:00etara

# ARGAZKI ZAHARRA



Zumarragako mojen eskolan duela urte mordoxxka bat ateratako argazkia duzue ikusgai honako honetan. Ezkerretik eskubira: Nekane Oiarbide, Soco Urtaran, M<sup>a</sup> Sol Olaizola, Arantxa Ibarzabal, M<sup>a</sup> Dolores Madina, Maite Antia, M<sup>a</sup> Josefa Badiola eta Gregori Andueza.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrjeta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko maiatza

## Musti Taldea: Urretxu-Zumarragako realzale-lagunartea



Maiatzaren 21ean Urretxu-Zumarragako "Musti Taldea" realzale-lagunartearen aurkezpena izan zen Kortaberri tabernan. Bertan, Francis Tamayo Realeko kontseilaria, Loren, Fuentes eta Iturrino Realako jokalaririk ohiak eta Mustiren senitartekoak izan ziren, besteak beste. Aurkezpen ekitaldiaren ondoren, "Musti Taldea" lagunarteko kideek eta Realeko ordezkariak afaria izan zuten Etxeberri jatetxean.

"Musti Taldea" sortzearen ideia lagunarteko lehendakaria den Emilio Hernandezena izan zen. Emilio Realeko bazkidea da eta, horretaz gain, askotan joaten da Realak etxetik kanpo jokatzeko dituen partidak ikustera. Urretxu-Zumarragatik bi astez behin Anoetara jende asko joaten dela ikusirik, herrian realzale-lagunartea sortzea pentsatu zuten. Lagunartearen egoitza Kortaberri taberna izango da. Realeko jokalaria izandako Musti Mujika herritarrak bizi duen egoera ikusirik, hasiera-hasieratik

argi eta garbi izan zuten taldeari zein izen jarriko zioten. Mustiren familiari bere izena jartzeko baimena eskatu zioten eta familiak onespina eman zuten.


"Musti Taldea"-ren helburua Realak bultzatzea da. Denboraldi honetan ez dute jada ekitaldi edo bidaia gehiegirik antolatzeko aukerarik. Baina, azken jardunaldi hauetan Realak liga irabazteko guztion laguntza beharko duenez, euren bultzadaxoa ematen saiatzen ari dira. Maiatzaren 25ean pantaila erraldoia jarri zuten Beloki pilotalekuan eta zaletu asko bildu ziren bertan Realak Malagaren aurka jokatu zuen partida ikusteko. Orain azkenurreko jardunaldiko (ekainaren 15ean) Celtaren aurkako partida ikustera joateko Vigora bidaia

antolatzen ari dira.

Lagunartekak 300 bazkide inguru ditu jada, baina oraindik nahi duenak bazkide egiteko aukera du. Horretarako, Kortaberri tabernara jo behar da izena ematera. Bazkide kuota urtean 12 eurokoa da. Lagunartekak gaztetxoentzako saila ere badu gazteen artean realzale-tasuna suspertzeko eta elkartean bertan harrobi lana egiteko.



**Ferretería BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK  
-ELEKTRAGAIK  
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina  
☎ 943 72 40 12 Faxe: 943 72 54 31  
ZUMARRAGA

## Mendi-ibilaldi arrakastatsua

Iñaki Beitiaren omenezko Iraupen Luzeko mendi-ibilaldiaren zazpigarren edizioak arrakasta itzela izan du. Euskal Herriko herrialde guztietatik etorritako 900 lagun inguruk parte hartu zuen Iñakiren omenezko mendi-ibilaldian, iaz baino berrehun gehi-



gok. Hauetatik 250 inguruk ibilbide luzea osatu zuen eta 650 mendizale inguruk ibilbide laburra. Pixkanaka-pixkanaka, antolatzaileen lan bikainari esker, Urretxu-Zumarragako mendi-ibilaldia Euskal Herri osoko mendizaleen

zita garrantzitsu bilakatzen ari da. Mendi-ibilaldiaren ostean betetako inkestetan mendizaleek oso gustura aritu zirela adierazi zuten eta hiru gauza azpimarratu zituzten: giroa, anoa-postuak eta ibilbidearen markaketa.

## Egunkariaren aldeko ekitaldiak

Egunkariaren itxieraz geroztik 3 hilabete besterik pasa ez diren arren, proiektu berria abian da jada. Egunkari berria ekainaren 14an aurkeztuko da Donostiako Belodromoan eta astebete beranduago izango da kalean. Egitasmo berria aurrera ateratzeko behar den dirulaguntza lortzeko "Berria berri" kanpaina abian jarri da. Kanpaina honen helburua akziotan 5 milioi euro saltzea da. Urretxun eta Zumarragan akzioak erosi nahi dituztenek (300 edo 50 eurokoak) Urretxuko Kultur Etxera jo behar dute lanegunetan 19:00etatik 20:00etara. Egitasmo berriari gure bi herrietan merezi duen bultzada emateko asmoz, maiatzaren 10ean Egunkaria Eguna ospatu zen Urretxu-Zumarragan. Bestalde, maiatzaren 22an, Andres Gostin Egunkariako zuzendaritzako kideak "Berria berri" akzio-kanpainaren eta egitasmo berriaren inguruan hitzaldia eman zuen Urretxuko Kultur Etxean. Ekainaren 6an, 22:30etan, Mikel Markezek eta Pako Aristik "Abiadura handiko urte baten kronika" izeneko ikuskizuna eskainiko dute Zelai Arizti Aretoan. Toki berean, ekainaren 18an 19:30etan, "Prentsaren papera euskal gatazkan" izenburua duen hitzaldia izango da.

# ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Herri Aldizkaria

## Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

**Merkea eta ona!**

**Darmanki**

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona

## ARTURO

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

## OSINALDE

KRUASANDEGIA  
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06  
ZUMARRAGA

## GUREA

Iturgintza  
Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU

## Anjeles Iztueta Gainzuri

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua Gainzuri ikastetxeko eraikin berriaren obrak bisitatzen izan zen maiatzaren 21ean. Anjelesekin batera, Ramon Murgia lurralde ordezkari burua, Pello Gonzalez alkatea eta Gainzuri ikastetxeko ordezkariak izan ziren. Anjeles Iztuetak obra urrian bukatuko dela esan zuen.

Azaroa eta abenduan eraikitzen ari diren barrualdea hornituko da. Hala, haurrak urtarrilean joango dira eraikin berrira. Bertara, 2 eta 6 urte bitarteko haurrak joango dira. Bestalde, Urretxu eta Zumarragako Udalek Zelai-Ariztin 0 eta 2

urte bitarteko haurrentzat hainbat gela egokitzea eskatu diote Hezkuntza Sailari. Bi Udalek partzuergo publikoan sartzeko eskaera luzatu dute eta haurtzaindegia urte hasieran irekitzeko asmoa dago. Urretxura egindako bisitaldian, Anjel Iztuetak Hezkuntza Sailak UGLEko pabiloi berria egiteko beste 25 milioi eman dituela ere iragarri zuen.



## Etxebizitzen zozketa



Maiatzaren 21ean Zumarragako Bidaurretan eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzien zozketa egin zen Zelai-Arizti aretoan. 102 etxebizitza zozketatu ziren eta zozketan 270 zumarratarrek parte hartu zuten. Etxebizitza Lurralde Ordezkarietan egingo den zozketaren ondoren, Bidaurretan etxebizitza erosteko aukera izango duten 102 lagunek zein etxebizitza egokitu zaien jakingo dute. Zigor Etxegintzak S.L. enpresak jakinarazi duenez, Bidaurretako obra 2005erako bukatuko dute. Etxebizitza hauek 65,51 m<sup>2</sup> eta 89,46 m<sup>2</sup> bitartekoak izango dira, garajea eta trasteroa izango dituzte eta 87.902,89 eta 111.568,60 euro bitarteko salneurria izango dute.



[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**megadenda**

**ramos**  
Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**  
Fermin Calbeton, 21  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburuan



## Bitartean, ingurugiroaren alde

Bitarteanek, Urretxu-Zumarragako Merkatarien Elkarteak, elkartekideen denda guztietan banatuko dituen kotoizko poltsak aurkeztu zituen maiatzaren 9an Zumarragako Udaletxean. Poltsa hauek ekainaren 9tik 13ra bitartean banatuko dira, Merkataritzaren II. Astearen barne.



Egitasmo hau dendarien elkarteak ingurumenaren alde hartu duen konpromisoaren lehen emaitza da. Ekimen honen helburua plastikozko poltsak gutxiago erabiltzea da. Izan ere, plastikozko pol-

tsak ez dira birziklatzen eta urte asko behar dira biodegrada daitezen. Horretaz gain, aurtengo Merkataritzaren Astea ingurugiroari buruzkoa izango dela esan behar dugu..



## Urola, preferente mailara igo da

Urola futbol taldearen lehen taldeak preferente mailara igotzea lortu du. Hori ospatzeko, jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideei harrerak egin zitzaizkien maiatzaren 24an Urretxu eta

Zumarragako udaletxeetan. Zumarragan Serafin Garziandia lehendakariak urdin eta hori koloreko lore sorta jaso zuen eta taldeko kide guztiei oroigarri bana eman zitzaien. Ondoren, afaria izan zuten.


**OSTATU ITSASO**  
☎ 943 88 03 15 - Itsaso

**MAPFRE**  
Aseguru etxea  
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70

**ARKUPE**  
**TABERNA**

**UROLA**  
**ELEKTRATRESNAK**  
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Gorka Quevedo

## Fartsa baten hausnarketak

Irakurleak lerro hauek irakurtzen dituenerako maiatzaren 25eko hauteskundeak pasata izango dira. Hauteskundeak ez zirenez ez libreak ez eta demokratikoak izan, ez dut gai horretan sakonduko. Fartsa eta pantomima horretan parte hartzen jarraitu nahi duenak ziurrenik hobe luke hurrengo orrialdea irakurtzen hastea. Lehenbailehen.

Lerro hauek maiatzaren 24ean idatziak daude. Politikoen arabera, hausnarketa eguna. Nik nahiago dut urte osoan zehar hausnartu eta hauteskunde bezperan ez pentsatzea. Botoa eman baina 24 ordu lehenago hausnartzea azken egunean ikastea bezalakoa da. Hala ere, hainbat gairen inguruan sakontzeko erabiliko ditut ordu horiek.

Espainako Gobernuak kontrolatzen duen telebista faszistetako batean, Aznarri honako hau entzuteko parada izan nuen. "Egun Euskal Herrian dagoen arazo bakarra terrorismoa da". Neurri handi batean ez zaio arrazoirik falta Aznarri.

Izan ere, terrorismoa da herritarren nahia lapurtzea. Terrorismoa da aukera politiko zilegiak ilegalizatzea. Terrorismoa da armen bidez egunkariak ixtea. Terrorismoa da tortura. Terrorismoa da dispertsioa. Terrorismoa da herritarrak baitzea. Zoritxarrez, Zumarragan eta Urretxun baditugu horren adibideak. Espainian argitaratzen den aldizkari ezagun batek badu "umoreari" eskainitako tarte bat. Atal hori idazten duen pertsonak honako titularra idatzi zuen. "La UPV nombra doctor horris causa a Joseba Garmendia". Ez dakit nork idatzi zuen hori, eta egia esan ez zait gehiegi axola. Ezizen bat jartzen zuen. Ez nau harritzen. Izan ere, putakume galanta izan behar da hori idazteko.

Titular hori asmatu zuenak, jakin beharko luke Josebak urtebete baino gehiago daramala bahituta

Espainiako espetxe batean. Bai, bahituta esan dut. Ez dago preso. Giza eskubideen inguruan hitz egiteko orduan batzuei ahoa hitz ederrez betetzen zaie. Hala ere, eskandalu hori salatzen dituzten hitz gutxi entzun ditut agintari eta politikoen artean. Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, bahituta jarraitzen du Josebak. Ikaragarria da. Une honetan bere etxean egon beharko lukeen herritar bat ziega batean dago.

Bestalde, badut aipatu nahiko nukeen gogoe-ta bat. Kontuan hartuta hauteskunde hauek iruzur handia izan direla, alderdi politikoen programen inguruko hausnarketa txiki bat egingo nuke. Inoiz betetzen ez diren promesa eta hitz ederrez beterik dauden triptikoz beterik daude gure etxeetako buzoiak. Hala ere inork ez du sakontzen demokraziaren benetako funtsan. Inozoren batek pentsa dezake lau urte-tik behin botoa ematea demokrazia dela. Kar, kar, kar. Alderdi politikoez ez dute demokrazia partizipati-boan sakontzen. Porto Alegreko kasua nabarmendu-ko nuke. Bertan, herritarrek erabakitzen dituzte asan-bleatan aurrekontuak. Diru publikoaren banaketa beharren arabera egiten da, eta herritarrek erabakitzen dituzte zeintzuk diren behar nagusiak.

Alderdi politikoen programak lotsagarriak dira. Udalak behar lukete herritarretatik gertuen dauden erakundeak. Eta demokrazia partizipati-boan sakondu ordez nahiago dituzte etxebizitzien prezio garestien inguruko lau tontakeria esatea. Gainera, ezer ez kon-pontzeko.

Joseba, gezur handi batean bizi gara. Ea amesgaiztoa lehenbailehen amaitzen den eta gure artean berriz egoteko aukera duzun.

"La unica lucha que se pierde es la que se abandona". Hebe de Bonafini. Maiatzeko Amen erakunde-ko kidea.

# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Realak liga irabaziko al du? Hala balitz, nola ospatuko zenuke?



**Jose Julian Holgado**

Athletic-ekoa naiz, baina Realak liga irabaztea nahi dut. Nire ustez, Realak du hobekien, Madrilek uzten dituen taldeak hartzen baititu. Ea Athletic-ek Realari laguntzerik duen, Osasuna eta Alavesi ez baitie asko lagundu.




**Unai Iribecampos**

Zaila duen arren, Madrilek jada ligan bakarrik jokatzen duelako, Realak liga irabaziko duela uste dut. Liga irabazten badu Donostiara joango naiz ospatzera lehertu arte.



**Armando Álvarez**

Irabaztea nahi dut, noski. Antonio eta biok Gijonen izan ginen lehenengoz liga irabazi zuenean. Hiru egun eman genituen bertan eta jokalariek gu baino lehenago heldu ziren. Aurten, berriz, Vigon irabaztea gerta daiteke.




**Antonio Garcia**

Areriorik gogorrena Madril dela uste dut, jokalaria on asko baititu eta hiriburukoa baita. Aurreko urteetan asko sufritu dugu eta aurten ere bai! Liga irabazten badu, beharbada Donostiara joango gara mozkortzera!



**Haritz Corsitto**

Realak liga Vigon irabaziko duela uste dut. Izan ere, Madrilek aste honetan Valentzian galdu egingo du (inkesta maiatzaren 23an egin genuen).



**Jon Azpeitia**

Azkeneko jardunaldian Donostiara joateko asmoa dugu Atlético de Madrid-en aurkako partida ikustera eta parranda egitera.

Mantenimiento e Instalaciones Electricas

**HERCE**  
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

**TABERNA**



**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura  
Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80  
URRETXU

**PAKO VIERBUCHER**

Ezkontza erreportajeak  
Argazki estudio eta artxiboa  
Prozesu digitalak  
Bideo profesionala  
Argazkigintza materiala


Legazpi, 5  
☎ 72 11 55  
Zumarraga

Labeaga, 43  
☎ 72 16 81  
Urretxu

**URKI**

liburudenda

Secundino Esnaola, 3  
☎ 943 72 42 98  
ZUMARRAGA



# Araba Euskarazera

## Urretxuarra ekainaren 8an Oionen ospatu

Gipuzkoan jaio eta Araban bizi diren gipuzkoar asko izango dira, baina hauetako gutxi lortuko zuten Asier Otamendi urretxuarrak "zazpigarren alaban" lortu duen onespene maila. Asier unibertsitate ikasketak egitera joan zen Gasteizera. Orduetik, Otamendi Arabako kultur mugimenduan aski ezaguna egin da eta bertako bertsolari nagusietakoa dugu. Hori gutxi balitz, ekainaren 8an Oionen ospatuko den Araba Euskarazeko koordinatzailea dugu. Ondorengo lerroetan, Asierren eskutik, Oion, San Bizente Ikastola eta aurtengo Araba Euskarazeko antolaketa ezagutzeko parada dugu.

### Nolatan zaitugu aurtengo Araba Euskarazeko koordinatzailea?

Ikastoletara kurrikuluma bidali nuen eta aukera hau sortu zen. Lanorduen %20a irakasle lanean ematen dut, euskara eta bertsolaritza irakasten ditut, eta gaitzetzeko %80a Araba Euskaraz koordinatzen ematen dut.

### Honelako festa erraldoiak koordinatzea sekulako lana da, asko pentsatu al zenuen erabakia hartu aurretik?

Banekien festa hauek antolatzeke atzean lan handia dagoela, baina erronka moduan hartu nuen. Ur handitan sartuko nintzen beldurra nuen, zalantzak nituen, baina ezagutzeko asmoz sartu nintzen. Izan ere, erronkak gustukoak ditut. Egun gogorak izaten dira, baina bizitza honetan

denetik ikasi behar da.

### Oion ezagutzen al zenuen?

Ez nuen ezagutzen. Justu-justu nekien mapan kokatzen. Arabar-Errioxan, Logroño ondoan, dagoela banekien. Betidanik erakarri nau Arabar-Errioxak, bere klima lehorrak...

### Guk ere ezer gutxi dakigu Oioni buruz, zer nolako herria da?

Herri txikia da, Arabako herri gehienak bezala. Hori dela eta, herri izaera du. Bestalde, industria eta nekazaritza arteko nahasketa du. Leku polita eta lasaia da, kotxe askorik gabea. Uda bertan pasatzeko moduko tokia da, lana egiteko baino. Bertan euskarak egoera zaila bizi du. Kanean bizitza ia osoa erdaraz egiten baita, nahiz eta herriko haurren erdia Ikastolara doan. Kontrako egoera honek lan egiteko indarra ematen digu.

## “Ekainaren 8an euskaltzaleen babesa izan nahi dugu indar berriak lortzeko”

### Zer esan dezakezu Araba Euskaraz antolatzen ari den San Bizente Ikastolaz?

223 ikasle dituen Ikastola txikia da. Biana, Logroño eta inguruotako herrietatik ere ikasleak etortzen dira. Irakaslegoa euskara aldetik oso kontzientziatua dago. Euskarak hemen bide luzea du oraindik egiteke eta jendea bide hori jorratzen ari da. Aurten Ikastolak 25 urte bete ditu eta hori aldarrikatu nahi dugu: ekainaren 8an

euskaltzaleen babesa lortu nahi dugu indar berriak lortzeko. Ikus dadila herri honek euskaraz bizi nahi duela eta baduela etorkizun euskalduna.

### Noiz ekin zenion Araba Euskarazeko koordinazio lanari?

Iraila hasieran hasi nintzen lanean. Hasieran aurreko urteetako txostenak begiratu nituen, beste lurraldeetan antzerako festak antolatu dituztenekin izan nintzen... honelako jai bat nola egiten den ezagutzeko. Gero, gurasoekin sei talde osatu genituen. Talde guztiekin egoten naiz eta denen artean planifikatu dugu eguna bera eta aurreko guztiak: helburuak, mezuak, arlo kultural, ekonomiko eta propagandistikoak... Hasierako hilabeteetan kontua pentsatzea da eta azkeneko hilabeteetan, berriz, aurretik lantzen joan den sumendiaren esplosioa dator: azpiegiturak lotu, txosnak antolatu, prentsari informazioa eman...

### Ikastolako gurasoak ondo erantzuten ari al dira?

Honelako jaiak antolatzeko jende asko behar da eta guraso batzuk ia urte osoan alboan izan ditut. Horiei esker atera da hau guztia aurrera. Gurasoekin pozik nago eta azken egun hauetan orainarte hurbildu ez diren guztiak ere hurbiltzea espero dut.

### Iaz Urretxu-Zumarraga Ikastolak Kilometroak antolatu zuen, behar izan duzun guztietan beraien laguntza izango zenuen...

Hasiera-hasieratik Kilometroak 2002ko koordinatzailearekin, Igor Elortzarekin, harremanetan jarri nintzen. Berarekin bilera berezi bat izan nuen lan hau nola egiten den ikusteko eta euren lan moldea gurera moldatzeko. Araba Euskaraz eta Kilometroak festen arteko aldeak haundiak dira, Araban ikastolak txikiagoak baitira. Dena den, informazio guz-

## Asier Otamendirekin atuko den ekitaldiko koordinatzailea da



tia oso baliagarria izan zaigu.

### **Zeintzuk dira lan honen alde on eta txarrak?**

Lan gogorra da. Izan ere, bilera asko egiten dira, kontaktu asko izan behar dira, lan metaketa handia dago, ordutegirik ez dago... Pertsona batek dena eramatea oso zaila da, baina batenbat egon behar da guztiaren gainean. Dena den, esfortzu orok izaten du bere saria eta bukaeran ikusiko dudala uste dut. Saririk onena hau aurrera ondo ateratzeko gai naizela ikustea izango da. Bestalde, jendea ezagutzeak ere bere alde ona du.

### **Zer aurkituko dugu ekainaren 8an Oionen?**

Ibilbideak 5 kilometro ditu eta gehienbat herri inguruan da. Hasieran, paseotxo bat izango da mahastietan zehar lehen atsedengunera iritsi arte. Hemen

ekainean bero handia egiten duenez, ibilbidearen gainontzeko zatia itzaletan izango da. Mundu guztiarentzako ekitaldiak izango dira. Bestalde, Arabar-Errioxa ardoarengatik ezaguna denez, ardoari merezi duen garrantzia emango diogu.

### **Zer esan dezakezu logoaz eta leloaz?**

Logotipoa mahatsondo bat da. Adarrek 25 zenbakiaren forma hartzen dute. 25 urtetan hazi den mahatsondo adierazi nahi du. Logoak hiru kolore ditu: urdina (Ebro ibaia), gorria (lurra) eta berdea (Kantabriako mendizerra). Hiru kolore hauekin lur honetan hazi den mahatsondo bat adierazi nahi genuen, 25 urte hauetan euskararen orriak lau haizetara zabaldu dituen mahatsondo. Lemari dagokionez, aurtengo lema "Oro bil borobil" da. Izan ere, Oiongo Ikastolak inguruko herrien bilketa egiten du eta biltze honek Ikastola aurrera ateratzen lagundu du. Gainera,

egun horretan ere jendea biltzen badugu, etorkizuna borobila izango da.

### **Zer esango zenieke urretxuar eta zumarratarrei ekainaren 8an Oionera joan daitezen?**

Buelta txiki bat eman dezatela. Batez ere, euskaltzaleek bere babesa eman dezatela, herri honek babes hori behar baitu euskaraz bizitzeko. Egun polit bat pasatzera etor daitezela: paisaia oso ezberdina ikusteko eta ardo ona probatzeko aukera izango dute. Hemengo jendeak benetan estimatuko die.

### **Ez al zaizu iruditzen Gipuzkoako goierritarrok Araba aldera behar baino guxtiagotan jotzen dugula?**

Denok gara pixka bat eroxoak. Urretxun eta Zumarragan ondo asko bizi garenez, ez dugu ateratzeko esfortzu handirik egiten. Baina euskaldunok Euskal Herria ezagutzeko esfortzua egin behar dugu. Iparraldera joaten garen bezala, hegoaldea ezagutzeak ere merezi du. Paisaia oso ezberdina du, bizi ohitura ezberdinak... kontrastatzeak merezi du. Euskaldunak izateak lotzen gaitu eta elkar ezagutu behar dugu.

### **Ekainaren 8a hurbil dugu. Urduri al zaude?**

Urduri samar eta nahiko lanpetuta nago. Dena den, batzuetan tentsioa ona izaten da lana aurrera eramateko. Azken egun hauetan armonian ondo lan egitea, gauzak ondo ateratzea eta ahalik eta jende gehien etortzea nahi dugu. Araban badago urtero Araba Euskarazera etortzen den jendea, baina Gipuzkoatik ere jendea etortzea eta Oion ezagutzea nahi genuke.

## Julita Telleria eta Juli Jauregi: 100 urte, hamaika istorio

Alboko argazkian Goiko-txabolako atean elkarrekin ikus ditzakezuen bi emakumeek, Julita Telleriak eta Juli Jauregik, 100 urte beteko dituzte uda ostean. Julita eta Juli aski ezagunak dira herrian. Julita Zumarragan jaio zen eta urte luzeetan jende askok oraindik bere izenaz ezagutzen duen kinkiladenda izan zuen eta Odolemaileen Elkarteko lehendakaria ere izan zen. Juli, berriz, Antzuolan jaio zen eta 70 urte inguru daramatza Zumarragan bizitzen. Aurki 100 urte beteko dituztela eta, beraiekin hitz egiten izan gara. Alde batetik, pozgarria izan da zein osasuntsu eta umoretsu dauden ikustea. Bestetik, benetan interesgarria euren bizitzaren berri izatea.



## Julita Telleria: "Ezin dut esan gaizki bizi izan naizenik; hori bai, beti soltera!"

Julita Telleria ez da komunikabideetan agertu zalea. Hori dela eta, berehala galdetu digu zer dela eta elkarrizketatu nahi dugun. "100 urte bete behar ditudalako? Nahiago nuke 50 urte beteko banitu!". Hautzaroa urrun gelditzen zaion arren, primeran gogoratzen ditu garai hartako zenbait gauza. "Urretxuarren aurrean eurek baino gehiago izateaz harro geunden. Beraiek ere uste berekoak izango ziren! Orduan Urretxu eta Zumarraga askoz ere txikiagoak ziren, baina beti egon da industria: Artizarren, Buscatarren... tailerrak zeuden. Garai hartan herrian Ramon Mendiak eta beste bizpahiruk soilik zuten autoa".

Gaztaroaz hitz egiten hasi eta berehala bere garaiako dantzaldiak datoz-

kio burura Julitari. "Gure bizitza Urretxu eta Zumarragan egiten genuen, herriak oso elkartuak zeuden eta gutxi ateratzen ginen. Igandea heldu eta bina pieza dan-

**"Ia lanik gabe hasi nintzen, baina denda oso ezaguna egin zen"**

tzatzen genituen herri bakoitzean. Bi herrietako musika bandak ados jartzen ziren, herri batekoak atsedean hartzen zue-

nean alboko herrira joaten ginen".

Astegunetan ikasi edo lan egin beharra zegoen, noski. "15 urte bete bitartean eskolara joan nintzen, lehenengo Nazionalak eta, ondoren, mojetara. Ama oso gazte hil zen eta etxean zazpi gizonetako genituen: etxeko laurak eta gure arotzegian lan egiten zuten hirurak. Hiru hauek joan egin ziren eta etxeko guztien kargu hartu nuen".

Julitak bere ama zenaren oroitzen bizi du. "Andoaingoa zen eta Zumarragara gazteleraz ez zekiela etorri zen. Oso emakume ona zen. Aita Donostiara joan zen arotz lanbidea ikastera eta han elkar ezagutu zuten. Ama Andoainera trenbidea egitera etorri zen frantses garrantzitsu baten alaba zen,

## Juli Jauregi: "Bizitza gogorra zen, baina besterik ez genuen ezagutzen"

Juli Jauregi Antzuolan jaio eta ezkondu zen. "Antzuolatik Bergarara joan nintzen bizitzera, bertan senarra ezagutu nuen eta Ezkoriazara joan ginen. Azkenik, hona etorri ginen. Senarra mekanikoa zen, Eskoriazkan bazkideek zikin jokatu zuten berarekin eta ezer gabe gelditu ginen. Hona heldu ginenean Artizenean, Badiolanean eta Patrizion ibili zen lanean. Anaiek Galeperra ondoko lokala erosi zuten eta bertan lan egiten hasi ziren. Gerra garaian lokal hura babeslekua izan zen".

Frontea Urretxu-Zumarragatik urrun zegoen arren, hemen ere bonba batzuk erori omen ziren. "Azokara joaten ziren esne-saltzaileek astoak Iburreta inguruan

lotzen zituzten eta bonbek asto hauetako batzuk hil zituzten".

Gizonezkoak gerran zeuden bitartean, emakumezkoek gogor lan egin behar izan zuten familia aurrera ateratzeko. "Aitagarrebarekin, amagarrebarekin eta lau seme-alabekin gelditu nintzen. Goiko-Txabola aldera joaten nintzen

**"Aparizion hasi nintzen lanean bonbak egiten, nire senarrari botatzeko erabiliko zituzten bonbak egiten"**

egur bila, zerua goian eta lurra azpian. Ondoren, Aparizion hasi nintzen lanean Nazionalentzat bonbak egiten, nire senarrari botatzeko erabiliko zituzten bonbak egiten. Han lanean nengoela Alegria komandantea udaletxera etorri zen eta bertara joateko esan zidaten. Sendi aber-tzalekoa nintzela eta bidali egin behar ninduten, baina gosea akabatzen bonbak egiten ari nintzela esan nien gelditzen utzi zidaten".

Gerra garaia gogorra izan bazen, ondorengo urteak ez ziren askoz ere samurragoak izan: gizonetako guztiak itzuli zirenean, Julik 14 pertsonako etxea gobernatu behar zuen. "Buzo mordoa garbitu behar nituen, guztientzat bazkaria

baina garai hartan ez zen egun bezala: aita hil zitzairenean ezer gabe gelditu ziren eta seme-alaba guztiak lanean hasi behar izan zuten".

Aipatu bezala, Julitak ere antzeko egoera bizi izan zuen ama hil zitzairenean: etxeko guztien kargu hartu behar izan zuen. Hori gutxi balitz, 1941eko tren istripuaren ondorioz, Telleriatarren etxeak su hartu zuen. "Hain ederra zen Cuatro Vientoseko etxe hura errauts bihurtu zen, izugarria izan zen. Ikusten duzunez, denetik bizi izan dut".

Telleriatarrek etxea berriro altxatu zuten eta pixkanaka-pixkanaka Julitaren anai-arrebak ezkontzen joan ziren. Hala, guztiak ezkondu zirenean, Julitak bere mesedetan lanean hasteko garaia zela erabaki zuen eta etxeondoan kinkiladenda ireki zuen. "Arratsaldeetan josten ikastera joaten nintzen Berriotxoatarren etxera. Zer edo zer egin nezakeela iruditu zitzaizkidan, etxean makina bat jarri eta puntua egiten hasi nintzen. Ondoren, denda ireki nuen. Ia lanik gabe hasi nintzen, baina

denda oso ezaguna egin zen. Garai batean igandetan ere irekitzen genuen, azoka igandetan egiten baitzen. Dena den, igandeguerdian iloba Maribel dendan uzten nuen eta Goiko-Txabolara joaten nintzen bazkaltzera oinez. A zer nolako zukua atera diodan nik Goiko-Txabolari!".

65 urte zituela, Julitak jada nahikoa lan egin zuela eta bidaiatzen hastea erabaki zuen. "Betidanik nire ilusioa bidaiatzea zen, baina lehenengo etxeoak zaindu behar nituelako eta gero dendan egon behar nuelako, ezin izan nuen. Jubilatuta bitartean ez nintzela Altsasutik pasa esaten nuen. Baina ondoren, nire ahizpa Enriekin, Roman, Venezian, Moskun... izan nintzen".

Dena den, jubilatuta ostean, bidaiatzeaz gain, beste hainbat zereginetan ere izan zen. "Donostiara joaten nintzen ahizparengana eta bertan odola ematen hasi nintzen. Garai hartan Zumarragan ez zegoen odolemaile elkarerik eta herrian talde hau sortzera bultzatu ninduten. Herrian lagunduko ninduten hiruzpalau

lagun aurkitu nituen: oso kolaboratzaile onak izan nituen. 90 urte bete bitartean herriko Odolemaile Elkarteko lehendakaria izan nintzen".

Urte luzeetan Julita besteen osasunaz arduratu zen, bereaz arduratzeko behar haundirik ez baitu izan! Izan ere, duela urtebete inguru ospitalera joan zen eta, bere iloba Maribelek kontatu digunez, medikuak zur eta lur utzi zituen: ez zuen fitxarik! "Jainkoari esker, ez dut sekula ezer izan. Oraindik ez dut inongo pilularik hartu beharrik eta denetarik jaten dut". Adin horretara horren osasuntsu heltzeko ez omen du sekreturik. "Lana eta buruhaustekak izan ditut, baina laguntzaile onak ere bai".

Julitak irailaren 26an beteko ditu 100 urte, baina ez du ospakizunetarako gogo haundirik: "Oharkabean pasatzea gustatuko litzaidake. Laburtuz, nire bizitza ona izan dela esan dezaket. Denborak aurrera egin du, momentu gogorrak bizi izan ditut, baina ezin dut esan gaizki bizi izan naizenik. Hori bai, beti soltera!".



**Juli Jauregi:**  
"Askotan, etxeko lanak egin eta Antzuolara joaten nintzen oinez ama bisitatzera"

prestatu... Eskuz garbitu behar zenez, bi astean behin soilik garbitzen genuen arropa. Herriko garbitegi guztiak ezagutzen nituen: Nafarroa plaza-koa, Ipintzakoa, Zelaikoa dagoen tokian ere beste bat zegoen... Etxean arropa uretan jartzen genuen bigundu zedin eta gero garbitzera joaten ginen. Egun, garbigailurik ez balego, ez genuke arropa hainbestetan garbituko! Bizitza gogorra zen, baina besterik ez genuen ezagutzen".

Izan ere, Juli beti etxeko lanetan aritu da. "12 urte nituenean Antzuolako Txepetxa karlista ezagunaren seme-alabak zaintzen hasi nintzen: hilean 3 pezeta ematen zizkidaten. Gerra garaian Txepetxaren erruz bi langile hil zituzten. Izan ere, lanordutatik kanpo bere aginduz ejerzitoarentzat

## Julita Telleria:

“Jubilatu bitartean ez nintzela Altsasutik pasa esaten nuen. Ondoren, ahizpa Enrirekin, Roman, Venezian, Moskun... izan nintzen”



uhalak (korreak) egiten zituzten zertarako ziren jakin gabe. Txepetxa politikan oso sartua zegoen eta bazekien zer zetorren. Txepetxarentzat lanean egon ondoren, Bergarako osaba harakinaren etxera joan nintzen. Bertan lau gizonezko bizi ziren eta denetatik egin behar nuen: harategiko lana, etxekoa...”

Osabaren etxean lanean ari zen garaian ezagutu zuen Julik bere senarra zena. "San Martzialeko erromerira joan nintzen lagun batekin eta bertan ezagutu nuen senarra zena. Berarekin eta bere lagun batekin jaitsi ginen herrira eta hurrengo igandean, San Martzial Txikitan, berriro elkar ikusi genuen. Bigarrenengo aldi hartan dantza eta guzti egin genuen. Beti izan naiz oso dantzazalea. Aita ere dantzazalea nuen eta festetan plazan dantzan ikusten nuenean negarrez itzultzen nintzen etxera. Lotsa ematen zidan aita dantzan ikusteak!”

Dantzazalea bai, baina Juli ez da sekula kalezalea izan, ordea. "Igande askotan ez nintzen ateratzen. Noizean behin

Goiko Txabolara joaten nintzen, Etxeberrira ere bai sagardotegia zenean... Dena den, haurrak hazi zirenean, Beloki aldera joaten hasi nintzen senarrarekin. Ez ginen zalaparta zaleak. Urretxuko karrozak Aizpurutik ikusten genituen. Senarra hil zenean, egunero Antiora joaten hasi nintzen. Horretaz gain, gantxiloa ere egiten nuen. Beti asko gustatu izan zait: 34 ohe-estalki egin ditut. Orain gantxiloa egiteko nahi dudan denbora guztia dut, baina artritidak ez dit uzten”.

Dena den, Julik ez du osasunaz kexu izateko motibu haundirik, 97 urte bete bitartean bakarrik bizi izan baitzen eta aurki 100 urte beteko baititu. Ez omen du ezer berezirik egin 100 urte betetzera heltzeko. Hori bai, ez du inoiz afaltzen, "ezta Gabon gauean eta Urtezahar gauean ere". Bestalde, aipatu bezala, ibiltzea asko gustatu zaio beti. "Askotan, etxeko lanak egin eta Antzuolara joaten nintzen oinez ama bisitatzera. Garai batean Beasainera joaten ginen ileapaindegira eta itzulerako trenan galtzen bagenuen oinez itzultzen ginen”.

## BIONA

### AROTEGIA

#### Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

**#kutxa**

fundazioa  
fundación

## EDURNE

### JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



*Lanbira*

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

## Miren Josu Aranburu: "Itzuliko nire neure burua gartzelara joateko"

Apirila bukaeran Garzon epaileak Udalbiltza legez kanpokontzat jo eta zortzi kide gartzeleratu zituen. Handik egun gutxira, Garzon epaileak Udalbiltzako sei kideri maiatzaren 23an beregana deklaratzera joan behar zutela jakinarazi zien. Garzonengana joan behar izan duten sei lagun hauetako bi Miren Josu Aranburu eta Joseba Garmendia urretxuarrak dira. Miren Josu Urretxuko zinegotzia eta Herribide plataformako zerrendaburuarekin hitz egiten izan ginen Madrilera abiatu aurretik, itzultzean berriro ere elkarrekin hitz egingo genuelakoan. Miren Josu oraindik ez da bueltatu, Garzonek espetxean sartu baitu.



rentzat. Gurekin lan egiten zuten elkarte guztiak azaltzen dira: Aztiker, Kontseilua, Hizkuntza Eskubideen Behatokia... Horietako edozein izan daiteke hurrengoa, nire ustez. Udalbiltzak bultzatzen baditu eta Udalbiltza ETA bada, Euskal Herri guztia dago barnean.

### Espero al zenuten halako zer edo zer?

Nik ez nuen batere somatu, nahiz eta jarraipenak somatu zituen jendea badagoen. Atxiloketen gauean goizeko 5etan deitu zidaten dutxatzeko eta arropa eroso jartzeko esanez, atxiloketa batzuk ematen ari zirela eta. Ez genuen espero eta kaotikoa izan zen. Dena den, Xabier Alegria ere Udalbiltzako langilea da eta bere atxilo-

### Zer leporatzen dizue Garzonek?

Autoan Udalbiltzako kideoi erakunde armatuko kideak izatea leporatzen zaigu. ETAk Udalbiltza diseinatu duela eta gu Udalbiltzako langile bezala jarri gaituela esaten da. Beharbada jendeak ez du oso argi Garzonek zergatik deitu didan eta argi utzi nahi dut: ni Udalbiltzako langilea nintzen. Boletinean herri komunikabideen mapa egiteko beka deialdia publikoa atera zen eta honela sartu nintzen. Ondoren, nire ikasketak direla eta lana antolatzeko perfila nuela ikusi zuten eta koordinazio lanean hasi nintzen. Orain aginduak ematea leporatzen zaigu, baina aginduak arduradun politikoek ematen dituzte.

### Zer gehiago dio autoak?

Garzonek legez kanpo uzten duen Udalbiltza Kursaal da, esistitzen ez den kontzeptu bat. EA-EAJk Udalbide erabili

izan du orainarte, baina Udalbiltza Kursaal sekula ez da erabili. Bestalde, autoan kontzeptuak berak kriminalizatzen dira: nazio eraikuntza esaterako. Autoa polizi nobela da, ez du ezer frogatzen. Telefono entzute batzuk daude, esaterako, eta bertako elkarriketen irakurketa bat egiten du.

### Zein egoeratan aurkitzen zara?

Atxiloketengatik triste egotetik haserre egotera pasatzen zara, haserre egotetik beldurra edukitzera... Jone Goirizelaia abokatuari kontu honi guztiari logika aurkitzen saiatzen naizela baina autoa irakurri ondoren ezinezkoa zaidala esaten diot. Edozein euskaldunentzat autoa irakurtzea ezinezkoa da, sekulako astakeriak esaten baitira. Autoan, Udalbiltzaz gain, beste elkarte asko azaltzen dira: ESAIT, Egunkaria bis derizotena... Hau aspaldi hasita dago, baina ez du bukaerarik bera-

ketaren ondoren guregana ere etor zitezkeela esaten genuen. Baita, egoitza Astigarragako udaletxean dugunez, udal txetxean sartzea ez zela erraza izango ere. Zein erraztasunarekin sartu ziren harritu egin gintuen.

### Nolakoak izan ziren ilegalizazioaren ondorengo egunak?

Egunean bertan atxilotuak hurrengo egunean deklaratzera pasa behar zutela jakin genuen. Lasaitasuna sentitu genuen, honela ez baitzituzten torturak pairatuko. Biharamunean zortziak gartzelara zihoazela jakin genuen eta minik handiena Leire Idoiagatik sentitu nuen. Udalbiltzako lana berehala utzi behar zuen eta Garzonek *ya se que no has hecho nada, pero vas a ir a la cárcel* esan omen zion. Zure buruarekin gaizki sentitzen zara besteak gartzelara sartu dituztelako. Jonek guri ere deituko

## Naizela uste dut, baina prestatu beharra dut”

digutela edo gure bila etorriko dela esan zidanean oso urduri jarri nintzen. Zitazioa heldu zenean lasaitu egin nintzen, oso gogorra baita edozein gautan zure etxean sartuko direla eta bost egunetan inkomunikatuta izango zaituztela pentsatzea. Momentu honetan ez dakit zer leporatzen zaidan. Dena den, nirekin ez dela denbora asko egongo eta lasai egoteko esan didate.

### Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Nire etorkizuna ostiraletik aurrera hasiko da. Itzuliko naizela uste dut, baina neure burua gartzelara joateko prestatu beharra dut. Hiru aukera daude: fidantza

“Denok bildu eta fronte bateratua osatzeko garaia heldu da”

eskatzea, gartzelara joatea eta askatasuna. Askatasuna kakotxa artean, zeren jada sumario batean sartua nago. Nire eskubide zibilak, ez politikoak soilik, zanpatuak daude. Momentu honetan ez naiz aske sentitzen edozein lan bilatzeko, beldurtuta nago. Zitazioa heldu eta neure buruan pentsatzea neurekoia dela pentsatu izan dut, barruan daudenak han daude, Josebaren kasua oso larria da... Inpotentzia izugarria sentitzen dugu. Izan ere, egunean ordu pilo bat sartzen genituen gauzak ondo egiteko eta, baliabide gutxi izan arren, izugarritzko lana egin dugu. Indarra bueltatuko zaidala uste dut, baina momentu honetan ez naiz haserrea kanporatzeko gai. Bestalde, jende askori eskertzeko asko dut, baina oso gertu dudan zenbait jendek egindako komentarioek min egin didate.

### Honen guztiaren zer interpretazio egiten duzu?

Egunkariarena pasa ondoren, nabaria da hau guztia Euskal Herriaren aurkako eraso dela. Zenbat aldiz pentsatu ote dut egun hauetan Egunkariaren itxieraren ondoren aipatu zen erantzun bateratuaren istorio horretan! Euskal Herrian denok bildu eta fronte bat osatzeko garaia heldu da. Etsaia pare-parean dugu, badakigu zein den eta nola jokatzeko duen eta oraindik ez gara gai. Nire lankide batek *el vaso tiene que llenarse hasta que empiece a rebosar* esaten zuen. Hemen ezker abertzalea baso hori betetzen uzten ari da, baina denori heldu behar zaigu. EA eta PNVko jendea hori adierazi diot: erantzun bateratu bat ematen ez badugu, baso horrek gainezka egingo du eta beraien bila etorriko dira. Orain Arzallus deitu du... poliki-poliki badatoz. Gertatzen dena da guk bete behar dugula baso hori. Momentu honetan 700 preso baino gehiago ditugu eta hauetako batzuen egoera oso larria da. Harremanak hobetzen eta erantzun bateratua ematen saiatu behar dugu, bestela Euskal Herriarekin bukatuko dute.

### Zertan ari zineten Udalbiltzan? Ilegalizazioaren berri mundu guztiak izango zuen, baina egindako lana jendearengana helaraztea zailagoa da...

Aspaldian genuen kezka hori: Udalbiltzak egiten zuen lana ez zela gizarteratzen. Udalbiltzak hasieratik nazio erakuntza planteatu du helburu nagusi bezala, zazpi herrialdeak bat eginda. Eguneroko jarduera hainbat arlotan banatzen zen: euskara, sozioekonomia, kultura, nazioartegintza... Alor bakoitzean interlokuzioak zabaltzen eta harreman horiek lantzen lan egin dugu: Euskal Herria aintzat hartzen duen irratia proiektua finantziatu eta elkarlana egin, Euskal Herriaren errealitatea nazioartean zabaldu Nazio Batuetan ordezkari bat izanez, Kontseiluraren hizkuntz behatokia ireki... Bestalde, udalen biltzar garen heinean udalak bultzatzen genituen proiektu guztiak laguntzera. Gure finantziario baliabideak txikiak ziren, baina harreman asko ireki genituen.

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazaletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak

Jaurritzak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU  
☎725682 ☎722292



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5

☎943 726274  
ZUMARRAGA



## Eraldatzen: berdintasunaren alde

Urretxuko Udaleko Emakumearen Kontseiluan parte hartzen duen emakume talde batek Eraldatzen elkarte sortu du. Elkarte honen helburua gizonezko eta emakumezkoen aukera berdintasun plana bultzatzea da. Eraldatzen elkartearen aurkezpen ofiziala irailean izango da. Aurkezpen ekitaldia heldu aurretik, Urola Garaiko hainbat elkartetako ordezkariak gure bailaran emakumeek bizi duten egoera aztertuko dute.

Elkarte berriaren nondik-norakoak ezagutzeko Eraldatzeneko bi kideekin izan gara: Arantxa Corralesekin eta Nilda Gorveinekin. Arantxak urte askotan emakumeen asanbladetan parte hartu du. Duela urte batzuk Zumarragara etorri zen bizitzera eta bertan ere emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alde lan egiten saiatu da.

Nilda Gorvein argentinarra familia zuzenbidean espezializatua den abokatu da. Duela hiru urte iritsi zen Euskal Herrira eta egun Urretxun bizi da. Gorvein doktoreak emakumezkoen eskubideen alorrean esperientzia zabala du. Izan ere, Argentinan emakumezkoen lan trebakuntzarako eta aukera berdintasunerako plan-gintzak diseinatu zituen.

Aipatu bezala, Eraldatzen Urretxuko Udalaren Emakumearen Kontseiluaren inguruan jaio da. "Gure hel-



Eraldatzen elkarteko emakumeak, argazkian Arantxa Corrales, Ana Belen Pereda eta M<sup>a</sup> Jesus Etxaniz, Urretxuko Kultur Etxean elkartzen dira.

burua iaz onartutako gizonezko eta emakumezkoen aukera berdintasun plana bultzatzea da. Udalek lan ugari dutenez eta askotan denari heltzeko arazoak dituztenez, elkarte bat sortzea erabaki dugu".

Nilda eta Arantxaren ustez gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna eman dadin, "eredu aldaketa ezinbestekoa da eta eredu aldaketa eman dadin gizonezkoen konpromisoa ere beharrezkoa da. Era honetara, besteak beste, emakumezkoak lan merkatuan txertatzea lor daiteke".

Eraldatzen elkarteko emakumeek beste helburu batzuk ere badituzte. "Emakumezkoen hausnarketa bultzatuko duten ekintzak antolatu nahi ditugu, pre-

bentzioa landu, emakumezkoen buruzko liburutegia eta bideoteka izango dituen lokal bat lortu...".

Eraldatzen elkartearen erregistroko kidea da jada eta egun dirulaguntzak lortzeko administrazio lana egiten ari da. Irailean aurkezpen ofiziala egin bitartean, bazkideak lortzeko lanean ari dira. "Elkartean trebatzeko gogoia izango duten emakume gogotsuak nahi ditugu. Bazkide gazteak ere nahi ditugu, gazteek gai honen inguruan hausnartzea oso garrantzitsua baita". Eraldatzen elkarteko bazkide izan nahi baduzue edo elkarte honen lanari buruzko informazio gehiago nahi baduzue Nilda Gorveinekin harremanetan jar zaitezke 630 611 181 telefonora deituz.

FAMILIA BABES ASEGURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.  
-HORTZ KLINIKAK.  
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.  
-HERIOTZ ASEGURUA.  
-ISTRIPU ASEGURUAK.  
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina  
20600 EIBAR  
☎ 943 20 24 70

**La Previsora Bilbaina, S.A.**  
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO  
museoari atxikituriko enpresa

2003ko maiatza

# ZORIONAK!



**Adrian**, hori da hori irrifarrea! Ikasturtea bukatzeko denbora gutxi falta dela nabari da! Zorionak eta ondo ibili!



**Agustina**, hori da hori irrifarrea! Gotzainak komentua konpontzeko dirua emango duela agindu al dizue?



**Ainhoa**, esaiozu argazkilariari aurrean kristala badu ez duela flashik erabili behar! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Amaia**, ez iezaguzu horren harroko begiratu neska, beldurra ematen diguzu eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Ana**, hori da hori zoriontasun aurpegia... Brad Pitt ikusi duzula dirudi! Zorionak eta segi horren irrifartsu!



**Ander**, behatzak entxufean sartu al dituzu? Hori da hori orrazker! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Ane**, argazkia ikusita benetan txintxo zarelara dirudi... gurasoak iritzi berekoak dira? Zorionak!



**Asun**, paparaziei mesprezuz begiratzeko dieten sasifamatu horietako bat dirudizu... hori da hori begirada! Zorionak!



**Asun**, argazkietan ateratzeak lotsa ematen dizula dirudi! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Beatriz**, argazkilariari zure profil ona ateratzeko agindu al diozu? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



A zer nolako tximak zituzten bi hauek euren gaztaroan... Los Brincos, Los Diablos eta antzerako taldeen zaletuak izango ziren nonbait! Garai hartan ileapaintzaileek ez zuten negozio handirik egingo gazteekin! Zorionak **Bitor eta Boni!** Ondo pasa urtebetetze eguna!



**Ezetz** asmatu nor den txintxo-txintxo begiraten ari zaigun hau? Txapela buruan eta "pitilloa" eskuan? **Zorionak Gaizka!**



**Gotzone**, argazkilariaren lanak begirune haundiagoa merezi du... ea hurrengoan arreata haundiagoa jartzen duzun!



Hi bai mutiko txintxo **Ibai!** Etxean ere horren txintxo egoten ari al zara? Zorionak eta ondo ibili!



**Iban**, udako oporrak berehala helduko direla argi eta garbi nabari da! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Igone**, eskolan dantzan bezain burubelarrari aritzen al zara? Hala bada, ikasle bikaina izango zara! Zorionak eta ondo ibili!



**Igor**, irratian lanean hasi zarenetik seriotu egin al zara? Otamotzera itzuli beharko duzu umorea berreskuratzera!



**Imanol**, ea urtebetetze egunean orrazia oparitzen dizuten, premia handia duzula dirudi eta! Zorionak!



**Imanol**, ez dakigu zer gertatu den zure argazkiarekin, baina muturra okertuta ageri zara. Tyson-ek muturrekoa jo al dizu? Zorionak!



**Iñaki**, kandelak itzaltzeko airea hartzen ari al zara? Zure aurpegia ikusita David ipotxak baino urte gehiago bete dituzula dirudi!



**Irati**, ez iezaguzu txintxo aurpegi horrekin begiratu, ahizparekin batera bihurrikeria politik egiten dituzula bada-kigu eta!



**Itziar**, gustura asko joaten zara osabarekin patata tortila jate-ra... ea noiz gonbidatzen gaituzuen! Zorionak eta ondo ibili!



**Jon Ander**, lasai, Realak ez du oraindik liga irabazi eta! Ea ekaina amaieran ospakizunetan elkar ikusten dugun! Zorionak!



**Jone**, badakigu duela aste batzuk gaixo izan zirela. Askok pozten gara osatu zarela. Zorionak eta segi horren irrifartsu!



**Jone**, argi ibili, lepoa gehiago okertzen baduzu bihurritu egingo duzu eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Josepi**, oraingoan ere mingainari eragiten ari al zara? Hankak ez, baina mingaina ederki nekatuko duzue zuek! Zorionak!



**Judit**, argazkia oihaldenda batean edo antzokiren batean ateratu zizutela dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



**Kristina**, ez dirudi ile faltan zaudenik, eta beharrez gaudenoi pittin bat ematen diguzun! Zorionak eta ondo ibili!



**Lucia**, argazkilariak ezustean harrapatu al zaitu? Paparazzi hauek benetan gogaikarriak dira! Zorionak!



**Maddi**, jakin al daiteke zer dela eta zauden horren burumakur? Alaitu zaitez, berehala oporrak helduko dira eta! Zorionak!



**Maria Rita**, elizan irakurtzen ari zirela ateratu al zizuten argazkia? Guri sermoirik ez bota gero! Zorionak eta ondo ibili!



**Maria**, herri gainean erregaia hartu zuten yankee-en hegazkinei begira zeundela ateratu al zizuten argazkia? Zorionak!



**Marijo**, dirudieneg argazkia ateratu zizuten garai hartako makinek ez zuten enfoke automatikorik... Zorionak!



**Mikel**, argazki kamerari beldurra al diezu? Hori da hori sustu aurpegia duzuna! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Nerea**, hori da hori zapi puxka jarri duzuna buruan! Etxeko izara erabili al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



**Paulino**, *vaya chico más fino!* Zorionak, segi orainarte bezain irrifartsu eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Udane**, alaitu ezazu aurpegi hori neska, aurki zure urtarora iritsiko da eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Valen**, hori da hori trebezia duzuna autoa aparkatzen, Valentino Rossi izen-kideak irakatsi al dizu? Zorionak!



**Venancio**, atzealdeko paretan ageri den papera non erosi zenuen esan behar diguzu, zoragarria da eta! Zorionak!

## Gurutze Fernández: Super

Nesken futbolak, sekula ez bezala, jende askoren ahotan eta komunikabideetan egotea lortu du Athletic taldeak espainiar estatuko Superliga irabazi duela eta. Dena den, Euskal Herrian, aspalditik neska askok jokatzen dute futboleant eta euskal futbolariak estatuko onenak dira. Urretxu-Zumarragan ere makina bat neska dira futboleant aritzen direnak, lehenik eskolarteko kiroleant eta ondoren Ikastola-Seirak taldeant. Seiraken aritutako herritar bat, Gurutze Fernandez, egun estatu mailako bigarren mailako Oiartzun taldeant, Euskadiko selekzioant eta estatuko selekzioant aritzen da.



### Nolatan hasi zinen futboleant?

24 urte ditut eta Ikastolan hasi nintzen futboleant, 8 urterekin. Institutuan hasi arte areto futboleant jokatzen nuen, baina orduan, zelai handian jokatzen hasi nintzen Seirak taldeant. Seiraken hasi eta berehala

Euskadiko selekzioarekin jokatzen hasi nintzen. Seiraken hiru urte egon nintzen, Eibartarrak taldeant bi urte eta Oiartzun taldeant hiru urte daramatzat. Selekzioaren eskubian jokatzen dut eta Oiartzunen, berriz, aurrelari.

**Zenbat maila daude nesken futboleant? Zuk zein mailatan jokatzen duzu?**

Seirak territoriala izeneko mailan dago eta gu, berriz, nazionala deritzanean. Gure multzoan Euskadi eta inguruko taldeak daude. Toki batzuetan nesken talde gutxi daude eta Zaragozako batzuek, adibidez, gurekin jokatzen dute. Gure mailan lau multzo daude. Gure gainetik iaz sortu zuten Superliga deritzana bakarrik dago.

### Zer moduz doa denboraldia?

Hamalau talde gaude eta oraingo z seigarrenak goaz. Nire taldeko kide bat eta biok gara ligan gol gehien sartu ditugunak. Gure multzoko onenak gainontzeko multzoetako onenen aurka jokatuko du eta beraien artean irabazten duena Superligara igo beharko litzateke. Dena den, dirurik ez badute ezin dira igo. Iruñeko Lagunak taldeari hori gertatu zitzaion. Superligan jokatzeko dirua oso garrantzitsua da. Izan ere, hamabost egunero Huelvara eta antzeko tokietara joan behar da. Gure ligan Superligako talde batzuk baino hobeak diren bospasei talde daude, baina ez dute dirurik. Superliga osatzeko dirua zuten taldeak hartu zituzten. Ordurarte ez zegoen estatu mailako ligarik: orain igotzeko egiten dena lehen liga irabazteko egiten zen.

### Euskadiko eta estatuko selekzioant jokatzen omen duzu...

Euskadirekin 17 urtez azpiko selekzioetik 25 urtetik azpikora pasa nintzen zuzenean. Espainiakoarekin gaztetxoan mailan aritu nintzen eta aurten selekzio nagusian jokatzeko deitu didate. Holandara joan ginen Eurokopara sailkapena jokatze-ko, baina ez nuen jokatu. Alemaniarrak, Noruegarrak... fisikoki gu baino askoz ere prestatuagoak daude.

### Zer diozu Athletic taldearen liga garai- penak sortu duen zalapartaz?

Izugarria izan da! Ea zer edo zertarako balio duen. Iruñeko Lagunak taldea igotzen bada, Osasunak lagunduko diola esaten ari dira. Gipuzkoa mailan ez dirudi halakorik gertatuko denik.

**Herrialde bakoitzeko gizonezko talde**

## erligatik pauso bakarrera

### **nagusiak emakumezko talde nagusiari lagundu beharko liokeela uste duzu?**

Athletic-ekoek suertea izan dute, zeren iaz Leioak mailaz igotzea lortu zuen eta Athletic-ek talde hori hartu zuen. Realak ekipoa aterako balu, ezingo luke zuzenean Superligan jokatu. Territorial mailan atera beharko luke eta, ondoren, igotzea lortu. Onena Realak taldea sortzea eta gainontzeko taldeek Realarentzako lan egitea litzateke. Hala, neskek eta taldeek ilusioa izango lukete: Realera heltzea eta Realarentzat lan egitea. Dena den, ez dakit Bilbon gertatu dena gertatuko litzatekeen. Izan ere, Athletic Bilbon sekulakoa da.

### **Egun Athletic-en ari diren batzuk lehenago zurekin batera arituko ziren...**

Itziar Gurrutxagak eta Eli Ibarrek nirekin jokatu zuten Eibarren. Beste askorekin Euskadiko selekzioan jokatzen dut. Oso gustura daude, San Mamesen 35.000 pertsonen aurrean jokatzea izugarria izango baita. Ea orain Kopa irabazten duten! Gainera, sekulako meritua dute ez baitute ezer kobratzen. Euren ligan ia talde guztietan zer edo zer kobratzen dute. Sabadell taldea diru asko duen emakume batek hartu du eta hileroko 300.000 pezeta kobratzen dute. Aprobetxatu beharra dute!

### **Ez al duzu Superligan jokatzeko eskaintzarik jaso?**

Iruñekoekin zer edo zer hitz egin genuen, baina oraindik igoko diren edo ez ikusi behar da, besteak beste. Bestalde, datorren denboraldian Oiartzunek talde indartsua atera nahi du eta Oiartzunekin igotzea ere ondo egongo litzateke.

### **Superligan jokatzea sari polita izango litzateke, Oiartzungo taldean jokatze-ko ahalegin haundia egingo baituzu...**

Donostian ikasten dut eta goizean klasera joaten naiz, arratsaldean praktikak izaten ditut eta, ondoren, entrenatzaera joaten naiz. Astean hiru egunetan entrenatzen dugu. Entrenamendua dudan egunetan etxera gaueko 11:30etan heltzen

naiz. Dena den, merezi du. Izan ere, taldean oso giro ona dugu eta Euskadiko selekzioarekin jokatzea mundiala da. Onena egiten dugun harremana da, aspalditik baitakigu ez dugula dirurik irabaziko.

## “Berandu bada ere, nesken futbolari garrantzia ematen hasi dira”

### **Athletic-ekoek aurten mugitu duten jende kopurua ikusita, datorren urtean soldata ederra mereziko dute ba...**

Datorren urtean zer edo zer kobratuko dutela uste dut. Aurten, kobratzen ez duten arren, Lezaman entrenatzen dute, Athletic-eko medikuak dituzte, partidetara hegazkinez joaten dira... baliabide guztiak dituzte eta oso gustura daude.

### **Zein da nesken futbolaren egoera?**

Gipuzkoan sekulako zaletasuna dago, Bizkaian baino gehiago. Territorial mailan 30 talde daude, esaterako. Hor arazo bat dago: 16 urtekoak 30 urtekoen

aurka aritzen dira. Hori dela eta, datorren denboraldian bi liga egin nahi dituzte: bata gaztetxoena eta bestea helduena.

### **Luzaroan jarraitzeko asmorik al duzu?**


24 urte ditut eta 8 urte nituenetik jokatzen ari naiz. Batzuetan nekatua sentitzen naiz, baina datorren urtean Oiartzunek talde ona ateratzen badu eta Donostia aldean lanen bat aurkitzen badut jarraitu egingo dut.

### **Bukatzeko, zer iruditzen zaizu komunikabideen jarrera? Badirudi orainarte neskek ez zenuela futboleko jokatzen...**

Athletic-ek egin duena oso ondo dago eta bertako neskek asko poztzen naiz, baina emakumeen futbola orain asmatu dela dirudi. Oiartzunek eta Añorgak bere garaian ligak irabazi zituzten eta egungoen balio berbera dute. Bestalde, Euskadiko selekzioa azken zortzi urteetan laupabost aldiz izan da estatuko txapeladuna eta komunikabideetan ez da ia ezer agertu. Zer da haundiagoa selekzioa ala Athletic? Jende askok sekulako lana egin du orainarte eta inork ez du aintzat hartu. Neska askok ez zuten uste sekula gertatu dena gertatuko zenik eta futbola utzi dute. Dena den, berandu bada ere, nesken futbolari garrantzia ematen hasi dira.



Gurutze, makurtuta ezkerretik laugarrena, euskal selekzioko kideekin.



## Patxi Jarit

Patxi Zelai-Arizti ikastetxean egin zituen ikasten. OHO. bukatu ondoren ikasketak utzi zituen, oso argi baitzuen txirrindularia izan nahi zuela. Hamar urte inguru zituela hasi zen txirrindulari lasterketan eta jubentzetan utzi zuen. "Ezin nuen txirrindularitza lanarekin bateratu eta utzi egin nuen. Gustura ibiltzen nintzen, maldan gora batez ere".

Izan ere, Patxi oso gaztetan hasi zen lanean eta ia denetatik egin zuen duela hamar urte Laket tabernan lanean hasi zen arte: igeltsari, tailer batean, mahats-biltzaille... Tabernan 20 urte zituela hasi zen eta oso gustura omen dabil. "Nire lana atsegin dut, nahiz eta bere alde txarrak ere badituen: okerreana lagunak parrandan daudenean

lana egin beharra da".

Txirrindulari zaletuaz gain, Patxi Realzale sutsua ere bada. Hala, dexentetan ateratzen da Realak etxetik kanpo jokatzeko dituen partidak ikustera. "Sorian, Iruñean, Madrilan... izan naiz. Azken honetan Aitor Zabaleta hil zuten egunean. Realaren bi partida gogoratzen ditut bereziki: 1987an Zaragozan Kopa finala irabazi genuenekoa eta Athletic-i 5 eta 0 irabazi genioneko".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Txirrindularia.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Arrantzan egitea eta mendian ibiltzea.

### -Bizitzeko toki bat?

Urretxu-Zumarragan gustura bizi naiz, baina Getaria oso gustukoa dut.

### -Gustuko txirrindularia?

Betidunik Marino Lejarreta izan dut gustuko. Egun aritzen direnietatik "Chechu" Rubiera atsegin dut.

### -Gustuko mendatea?

Tourmalet.

### -Beti igo behar duzula esaten, noiz igoko duzu?

Horretan nabil... ahal dudanean igoko dut! Horretarako prestatu beharra dago.

### -Gustuko txirrindulari lasterketa?

Klasikoen artean Paris-Roubeaix atsegin dut, bestelakoetan Euskal Herriko Itzulia.

### -Realeko gustuko jokalaria?

Agustin Aranzabal.

### -Realak liga irabazi behar al du?

Hori nahi nuke, baina irabazten ez badu ere, Realak egingdako denboraldiarekin gustura egoteko moduan gaude.

### -Irabaziko balu, pentsatu al duzu nola ospatuko zenukeen?

Tabernan lagunekin ospatuko nukeela uste dut.

### -Gustuko musika?

Tabernan denetik jartzen dut, baina niri gehien gustatzen zaizkidanak Bruce Springsteen eta Loquillo y los trogloditas dira.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

### -Egindako azken oparia?

Irrati bat.

### -Eta jasotakoa?

Kamiseta bat.

### -Data bat?

Uztailaren 2a, Santa Isabel eguna.

### -Neska eta mutil izen bana?

Nerea eta Jon.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Mundo Deportivo, Gara eta Diarioko herriko kronika.

### -Gustuko telebista saioa?

Kirol saioak eta bigarren kateko arratsaldeetako dokumentalak.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Pilo bat esango nizkizuke.

### -Liburu bat?

Gutxi irakurtzen dut. Irakurri dudana azkena José Luis Garciren "Beber de cine" izan da.

### -Filme bat?

"Erase una vez en América".

### -Gustuko abestia?

Bruce Springsteen-en "The river".

### -Soinu bat?

Itsasoko olatuek arroketan haustean ateratzen dutena.

### -Usain bat?

Bainilarena.

### -Janari bat?

Denetik atsegin dut, baina batez ere txuleta txingarretan.

### -Ura ala...

Ardoa eta sagardoa.

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

## GIZA BALIABIDEAK

GOI MAILAKO  
TEKNIKARIAK

-SEGURITATEA  
-ERGONOMIA  
PSIKOSOZIOLOGIA  
-HIGIENEA

## HIGIENE NEURKETAK

NEURKETA MOETAK:


-ZARATA  
-KUTSATZAILE KIMIKOAK  
-ESTRES TERMIKOA  
-ARGIA  
-BESTELAKOAK

## OSASUN JARRAIPENERAKO ZENTROA

ENPRESA MEDIKUA ETA OSASUN  
LAGUNTZAILE TEKNIKOAK

-ANAMNESIAK  
-AUDIOMETRIAK  
-IKUSMENA  
-ELEKTROKARDIOGRAMA  
-BESTELAKOAK

URRETXUN, LABEAGA 56-58AN, EGOITZA BERRIA  
TELEFONOAK: AITOR, 656777297 - IKER, 615793912 - JUANJO, 609612548



# IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,  
INGURUMEN ETA  
LAN-ARRISKUEN ARLOKO  
SISTEMAK

Labeaga kalea, 60 ent. N  
Tel. / fax: 943 72 64 63  
e-mail: [irnasa@facilnet.es](mailto:irnasa@facilnet.es)  
URRETXU

**IKER**

**SUKALDE ERAKUSKETA**

**FAGOR**



**Udala enparantza, z/g.**

☎ 943 79 00 43

**20500 ARRASATE**

**Ipeñarrieta, 5**

☎ 943 72 50 75

**20700 URRETXU**